



Proposamen didaktiko hau lantzeko aholku metodologikoak

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutza, sinesmenak, aurreiritziak eta izandako bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrek konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu.

Aurrera pausu horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz, eta horixe izango da, hain zuzen, programa honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko. Irakaslearen lana taldea bideratzea izango da, elkarriketa horiek gerta daitezkeen beharrezko baldintzak ahalbidetzea. Horretarako, honako orrialde hauetan, hainbat baliabide eskaintzen ditugu ikasgelan elkarriketa parte-hartzailea eragiteko, eta zenbait galdera irakasleak elkarriketa sustatzeko eta gidatzeko balia ditzan.

Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzailerak sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:

Arakatu	Nola jakin dezakegu...? Nola bila dezakegu...?
Hipotesiak formulatu	Zer azalpen izan dezake honako honek? Zer gertatuko litzateke baldin eta...?
Beste bide batzuk bilatu	Zer beste modutan azal dezakegu...? Zeini bururatzen zaio beste konponbide bat?
Definitu	Hitz hori erabiltzen duzunean, zer esan nahi duzu?
Parekotasunak eta desberdintasunak bilatu	Zer dute komunean...?
Sailkatu	Zenbat modutan sailka dezakegu?
Arrazoiak eskatu	Zer arrazoi duzu honako hori esateko?
Ondorioak atera	Baieztapen hori egia bada, zer ondoriozta dezakegu?
Kausak eta ondorioak erlazionatu	Hori gertatzen denean, zein dira ondorioak?
Hitzezkoa ez den hizkuntzatik hitzezkoa itzuli	Zer adierazi nahi du keinu horrek?
Laburtu	Hitz gutxitan azal dezakezu...?



Metodologia-proposamen zehatz honek elkarrizketa du oinarri beraz; azken batean, etika biziaren trebakuntza bat da. Bizikidetzarako, pertsonen arteko errespeturako eta garapen intelektualerako beharrezko prozedurak eta jarrerak martxan jartzen dira. Era ordenatu eta sistematikoan hitz egiteak lagunduko du elkarrizketa modu eraikitzailean erabiltzeko ohitura hartzen. Elkarrizketa batean, beste pertsonaren iritzia eta hitz egiteko txanda errespetatzen dugu, eta entzuteko gaitasuna eta pazientzia trebatzen ditugu. Honez gain, gure iritziak argudiatzen eta gure kideek zer pentsatzen duten hobeto eta sakonago ikasten dugu; modu horretan, errazago zaigu haiek ulertzea eta haiekin enpatizatzea.